

Zegama ere intsumisioan sartuta

Ez da Zegama izateagatik, eta Zegama nire herria. —baina Zegama ere izateagatik, intsumisioan sartu dena: Manu Arizkorretak ez du soldadu joan nahi. Eta zegamarrek —Zegamako Udalak eta herriak— ulertu egin diote.

Berria hori da. Eta berria da. Herri txikiek beren logika partikularra izaten dute, eta beren zailtasun partikularrak izaten dituzte arazo batzuk ulertzeko. Lehen, soldaduska egin beharra zegoen eta, herrian, soldadu joateak ematen zuen arrazoizkoega, bildurrak urte askoan jendea irakasten dion arrazoiarekin. «Gu joan ginen ba: zergatik ez du joan nahi orain mutil horrek?», bildur zara, edozein kaikus horrelaxe galdetuko ez ote dizun. Baina ez da horrela izan. Bakoitzari bere adoneak bakarrik, makina bat kostata gainera, irakas diezaiokeen barru-barruko arrazoiarekin, Zegama eta Euskal Herriko herrixiki askotan, arrazoizko soldadu ez joatea hasi da berriro izaten orain.

Berriro: mutilak ez baitira beti isil-isilik soldadu joan izan munduan, eta gutxiago euskaldunak.

Karlistadak galdutakoan hasi zen Euskal Herrian soldadu joan beharra. Ez da hain aspaldi, eta ezagunak dira 'libratzeagatik' familietan beti egon diren ahaleginak eta trikimailuak. Soldaduska absurdu hutsa beti izan da eta ahal zuenak ihes egin dio, hori egia zaharra da hemen. Dena dela, karlistada hura bezala, euskaldunok galdutako egin genuen Estatuari buruz gogoeta kritikiko serio bat egiteko aukera ere orduan, eta orain daukagu egin beharra.

Beharbada den-denek ez zuten aukera galdutako, halere. Pio Barojak behintzat bere ondorioak iaster atera zituen. «Yo soy un antimilitarista de abolengo. Los vascos nunca han sido soldados en el ejército regular», protestatu zuen. Gazte pilak aldegin zuen orduan Ameriketara edo Iparraldera soldaduskatik ihesi. Soldaduskatik, ala Estatu berri? Hori baita kontua. Arana Goiri, Kanpion, etab, orduan hasi ziren gaineratu zitzaigun Estatuaren arazoari aurre egiteko eta beste etorkizun bat bilatzen Euskal Herriarentzat, gerra galdutako duenari bizkarreratzen zaion zigorra baino beste zerbait izango zena. Bila jarraitzen dugu.

«Yo siempre he tenido un asco profundo por el cuartel, por el rancho y por los oficiales», deklaratu zuen don Piok. Hori, zegamar denek sentitu dute beti don Piok adina eta gehiago. Ez da nahikoa! Zegamarrek ondo ikusi dute, askok ikusi nahi ez duena, oraingoan asuntua ez dela norbaitek soldaduskatik ihes egitea edo aitzakiak asmatzea 'libratzeko': Manu Arizkorretak problemari aurre egin dio, ihes egin gabe, buruz buru. Intsumisioan planteatzen dena, ez da arrantxoa, Estatu da eta «gaur egun aurkitzen garen dominazio sistema». Arizkorreta intsumisioaren alde Zegamako Udalak onartutako mozioak dioen bezala.

Ez da izango gure arazo guztien soluzioa, baina soluzioak bilatzeko bide bat da.

Intsumisio mugimenduak arriskua badauka, folklore modu batean bukatzeko, bere esanahi sakonera transmititzea lortzen

ez badu gizartearen —eta Estatuak ahalegin guztiak egingo ditu—, lor ez dezan. Inportantegia bilakatu da sozialki. Inieresantegia da, ideia bezala ere. Pertsonaren duintasun erradikalaren ideia. Estatu jantzitako Makina Armatuari aurre egitea. Arrisksuegia da, atzoko gure historian alderdi eta aldekatan banatu eta elkarrekin enfrontatu gaituen planteamendu modu asko, gaintzen duelako ere. Berriro denok bategiteko aukera bat, «dominaziorik gabeko, gerra eta esplotaziorik gabeko eta justizia eta elkartasunean oinarritutako bake baten aldeko ekintzan».

Intsumisioa, ez ihespeide bezala, baina erabaki moral eta sozial bezala, azken urteotako erreferentzia argitsuena bihurtu da, seguruenik, Euskadi apal eta libre batean amets egiten jarraitzen duten guztiarentzat, mundu humanoago batean denok bakan bizitzeko. Hala ulertu du Zegamako Udalak, mozioa onartuz Manu Arizkorreta intsumisioaren alde. Eta ez da Zegama izateagatik, eta Zegama nire herria: euskal gizartearen ulertzen hasi delako da, hirietatik herrisketaraino, gazteen borroka hori gure borroka dela, herriarena, guztiona. Gizarte eredu bat dagoela jokoan. Gizarte berri bat, esperantza bat. Izan ere, luzarora garbi ez badago ere nolako Euskadi bat denok nahi dugun, hasteko, jakin dezakegu nolakoa ez dugun nahi.

JOXE AZURMENDI

EHU-KO IRAKASLE ETA IDAZLEA

Espainiako eleaniztasunaz

BELLOCH jaunak esan berri duenez, prest omen legoke NANEAN elebitasuna bultzatzeko. Poztekoa da: hori, berez *desideratum* hutsen gelditzeko arriskua badu ere, zirrikitu hori kontsideratzeko gertu egon ez diren haren orain arteko aitazidari intransigenteena baino jarrera zabalagoa da eta.

Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua argitan, bere egunean Euskaltzaindiak salatua, bistan da galego, katalan eta euskadunok; gaztelau guztiahaldunekiko, bigarren mailako hiritarrek garelara. gu haien hizkuntza ikastera beharturik gauden bitartean, haiek, aldi. Galizian, Katalunian eta Euskal Herrian antzeko beharkizunik ez dutelako. Hitz batez, gaztelaniadunak lehen mailako hiritar osoak direla, eta besteok bigarren mailako paria batzuk, bestela ezinean toleratuak.

Egia da erro luzeetako bereizkeria inperial hori pixkat guntzetzeko, badela gehigarritxo bat gainerako hizkuntzei ere bereziki errespetatu eta babesteko deritze-

na, baina azken hamabost urteotako praktikaren argitan, horiek zerutiko hitz hutsak besterik ez dira izan, orain arte bederen ezertan mamitu gabeak. Alderantziz, ehundaka dira, gaztelaniaren derrigortasun harro horretan oinarriturik, bigarren mailako hiritarrek lehen mailako hiritarrekiko oraindik jasan beharreko umiliazioak.

Politika ofizialaren bidetik, gaztelania jakiteak euskaldun, katalan eta galegok aberasten gaituen bitartean, badirudi, ordea, gaztelaniadunak beren hizkuntzaren aldamenean galiziera, katalana edo euskara ikusteak kutsatu eta zikindu egiten dituela, beren elebakartasun birjinala hautsiz. Eta konturatu zein konturatu ez, beste aldeko, norberarena gutxiesten duenaren ondoan bizi beharrek nekatu eta haserrarazi egin gaitu, etengabeko meztrenzioagatik.

Garaia da, nik uste, esaten den bezala, euskara, katalan eta galiziera espainiar kultur ondareko balioak baldin badira,

Espainiako ezaugarri publikoetan ere inolako lotsa gabe, eta bai harrotasunaz ager daitezten. Belloch biministro jaunak nortasun agiri nazionala aipatu du, eta arrazoi osoa dauka. Nik neuk, horrez gainera, dirupapera edo posta-tinbreak ere gogoratu nizkioke, Belgikan frantsesez eta holanderaz, Israelen hebraieraz, arabieraz eta ingelesez, eta behialako Sovietar batasunean hango errepubliketako hamabost hizkuntzatan agertuak.

Espainian lau hizkuntza ofizial dira. Eta askok eskuartearen darabilgun diruan horiek ikusi nahi genituzke. Horrek guztiok maila bereko hirikide sentieraziko gintuzke, inoren aldeko bereizkeriarik pairatu gabe. Arestik Bizkaiko buruzagi sozialistari egindako bertsioan bezala: «Itxi leunki begiak, Meabe/ betilea atxekirik betileari/ Espainola izateko./ Espainiako lau hizkuntzak behar dira jakin».

XABIER KINTANA

IDAZLEA ETA EUSKALTZAINA

BERRIAKZIRI



RAFAEL RIBO
IUCIC oipulea
EL MUNDO

«Roldanen ihesa

Estatuko kupulatik antolatuta zen»



LUIS VILLASANTE
Euskaltzain osoa
EL DIARIO VASCO

«Elizak ez du beti de-

fenditu euskara arrazoi kultural hutsengatik»



WOLE SOYINKA
Nobel saria
EL PAIS

«Berriro ere zehaztu

behar ditugu Afrikako nazioen arteko mugak»



JAVIER IRURETA
Futbol entrenatzaile
DEIA

«Athleticek hemen-

go entrenatzaileak izan behar ditu»

ZAKILIXUT

© Olariagak

